



I. ERANSKINA

2025EKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO UDALEK ETA KUADRILLEK SUSTATUTAKO KULTURA EKIMENAK GARATZEKO.

1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe udalei eta kuadrillei, 2025eko ekitaldian kultura ekimenak gauza ditzaten.

Deialdia bat dator Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia) xedatutakoarekin. Dekretu hori Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zenbakia).

Bi dirulaguntza modalitate ezartzen dira:

- 1 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500 eurokoa edo txikiagoa duten kultura proiektuak.
- 2 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500 euro baino gehiagokoa eta 20.000 euro baino gutxiagokoa duten kultura proiektuak.

Entitate eskatzaileek proiektu bakarra aurkeztu dezakete, eta bi modalitateetako bat aukeratu behar dute aurkezteko.

2. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira. Dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskaerak ezarritako balioespen irizpideen arabera alderatuko dira, eskaeren arteko hurrenkera ezartzeko. Balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, betiere deialdian ezarritako aurrekontu zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

3. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

1. Deialdiaren gehieneko zenbatekoa 85.000 euro da, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 70105.G/334700/46290704 "Udalen eta kuadrillen kultura ekimenak" partidaren kontura.
2. Honela banatuko da deialdiaren zenbatekoa:
 - 1 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500 eurokoa edo txikiagoa duten kultura proiektuak. Diru hornidura: 25.000 euro.
 - 2 modalitatea: diruz lagundu daitekeen aurrekontua 5.500 euro baino gehiagokoa eta 20.000 euro baino gutxiagokoa duten kultura proiektuak. Diru hornidura: 60.000 euro.

Oinarri orokor arautzaileen 7.1 apartatua betez (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua), funtsak bi modalitateen artean banatu ahal izango dira, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

3. Diruz lagun daitekeen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa.

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren ehuneko 60 ere, eta entitate eskatzaileak gainerako ehuneko 40a daukala ziurtatu beharko du. 2 modalitatean, horrez gainera, entitate bakoitzeko 7.000 euroko dirulaguntza muga ezartzen da.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero 350 eurora heltzen ez diren eskaerek.

4. artikulua. Entitate onuradunak

- Entitate onuradunak:

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabeke udalak eta kuadrillak, Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

- Kanpoan geratzen diren entitateak:

Kanpoan geratzen dira Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan jasotako egoeretan dauden entitateak, baita Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan zehapena jaso dutenak ere.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

Kultura sustatzeko programa irekiak lagundu ahal izango dira diruz, edozein alderditan.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri, behar-beharrezkoak izan, merkatuko balioa gainditu ez eta 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 14ra bitartean egiten direnak.

2. Diruz lagundu ezin diren gastuak:

Dirulaguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, dirulaguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko hauek:

- Entitatearen mantentze, kudeaketa eta funtzionamendu gastu orokorrak.
- Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
- Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak erostearen ondoriozkoak.

- Edozein argitalpenen edizio gastuak, berdin diolarik zein euskarritan eginak diren (papera, CDa, weba eta abar), ezta ondoren egiten den ustiapena ere.
- Ordezkaritza, protokolo, opari gastuak eta antzekoak.
- Berbenek eta ospakizunekin, Eguberriko festekin, erromeriekin eta herriko jaiekin lotutako gainerako ekitaldiek sortutako gastuak, Arabako tradizioko herri partaidetzako kultura ekintzak izan ezik.
- Aisialdiko edota entretenimenduko jarduerak, jolas eta jai jarduerak eta kirol jarduerak eragindako gastuak, bai eta berariaz kulturalak ez diren jarduerak sortutakoak ere.
- Soldatapeko langile gastuak.
- Bidaia, egonaldi eta publizitate gastuak.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea.

1. Betetzeko eskuragarri dagoen eredu espezifikoa egokitu beharko zaizkio eskaerak.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoa betez, entitate interesdunak, pertsona juridikoak diren aldetik, behartuta daude aurkezpen telematikoa egitera, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoa bidez (<https://web.araba.eus/es/web/egoitza/-/convocatoria-de-subsenciones-para-desarrollar-iniciativas-culturales-promovidas-por-ayuntamientos-y-cuadrillas>)

2. Eskaera hainbat entitatek batera aurkezten badute, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako exekuzio konpromisoak zehaztu beharko dira, bai eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta entitate guztiak hartuko dira onuraduntzat. Era berean, pertsona edo entitate bat izendatu beharko da elkartearen ordezkari edo ahaldu bakar gisa, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, eta harekin ezagutuko dira eskaera izapidetzetik eratorritako gainerako jarduketak.

7. artikulua. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko hamabost (15) egun baliouduneko epea izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua. Eskatutako dokumentazioa.

Eskaerekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Kultura programaren proiektua, balioespen irizpideak osatzen dituzten alderdi guztiak jasotzen dituen (oinarri hauetako bederatzigarren artikulua, II. eranskinean garatua).
2. Diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua.

Ezinbestekoa izango da eskaerari erantsita proiektua eta aurrekontua aurkeztea oinarri hauetan ezarritako epean eta moduan. Ez badira proiektua eta aurrekontua aurkezten eskaerarekin batera, ez da izapidea onartuko.

3. Administrazio agiriak:

- Egiaztagiri bat, entitatearen organo eskudunak eskaera baimentzeko eta gastuaren zati bat finantzatzeko hartutako erabakiarena, zeina eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen hartua izan beharko baita.

Hainbat udalek edo kuadrillak batera aurkeztutako eskaerei dagokienez, programan parte hartzen duten udal guzti-guztiek erantsi behar dute egiaztagiri hori.

- Era berean, udalen talde batek aurkeztutako eskaeren kasuan, taldearen ordezkari gisa jarduten duen pertsonari edo entitateari emandako ahalordea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- Hala badagokio, inplikaturako eragileek programa gauzatzen parte hartzen dutela egiaztatzen duen gutuna edo adierazpena.

Kultura Ekintza Zerbitzuak egokitzen jotzen duen behar beste agiri eskatu ahal izango dizkie entitate eskatzaileei aurkeztutako eskaera behar bezala balioetsi eta ebatzeko.

Eskaeran edo horrekin batera aurkeztu diren administrazio agirietan akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar egun balioduneko epea emango zaie entitate interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluko ezarritakoarekin bat etorritik.

9. artikulua. Balioespen irizpideak

Aurkeztutako proiektuen balioespena irizpide hauen arabera egingo da:

BALIOESPEN IRIZPIDEAK		
1. Proiektuak Arabako kultura eskaintzari egiten dion ekarpena	25	
a. Proiektuaren kultura kalitatea		15
b. Diziplina anitzeko programak		4
c. Kultura eragina, proiektua garatzen den herrietan bertan eta kanpoan.		3
d. Gizarte eragina: proiektuaren onuradunak, norentzat den		3
2. Izaera berritzailea	5	
3. Kultura proposamenaren ibilbidea eta sendotzea denboran	5	
4. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa	15	
a. Proiektuaren oinarria		4
b. Jardueren metodologia eta plangintza, gauzatze egutegia barne		5
c. Jarraipena eta ebaluazioa		4
d. Beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak berariaz zehaztea		1
e. Programaren komunikazioa eta zabalkundea		1
5. Proposamenaren finantzaketa eta bideragarritasuna	5	
6. Hainbat udalek edo kuadrilla batek sustatutako programak	5	
7. Tokiko elkarten programan parte hartzea	7	
8. Programa biztanle gutxiko edo populazio sakabanatuko udalerrietan gauzatzea	13	
9. Euskara erabiltzea programaren garapenean	5	
a. Programan euskararen erabilera sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak sartzea		3
b. Euskara erabiltzea programaren garapenean		2

10. Ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak	5	
a. Programan sartzea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza espezifikoak		3
b. Emakumeen kontratazioa eta parte-hartze profesionala programa gauzatzean		2
11. Programan tolerantzia, gizarteratzea eta kultura aniztasuna sustatzen dituzten helburuak eta ekintzak sartzea.	5	
a. Pertsona eta talderik kalteberenei arreta berezia ematen dieten programak, pertsona eta talde horiei jardueretan sartzeko eta parte hartzeko aukera ematen dieten ekintza espezifiko bidez		3
b. Tolerantzia, gizarteratzea eta kultura aniztasuna nabarmentzen dituzten mezuak zabaltzen dituzten programak		2
12. Ingurumen irizpideak: ingurumen hezkuntza sustatzearekin lotutako ekintza espezifikoak.	5	

Aipatutako irizpideen baremoak eta haztapenak deialdi honen II. eranskinean garatzen dira.

Dirulaguntza emateko proposamenean, gutxienez 50 puntuko balioespena lortzen duten eskaerak bakarrik sartuko dira.

Lortutako irizpideen puntuen baturak guztirako puntu kopuru unitarioa emango du eta, ondoren deskribatzen den eskalara eramanda, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako aurrekontuaren arabera esleitu beharreko dirulaguntzaren ehunekoa adieraziko du.

Puntu kopurua	Dirulaguntzaren ehunekoa
0 – 49	0
50 - 59	30
60 - 75	40
76 - 90	50
91 - 100	60

Deialdi honetan ezarritako baldintza guztiak bete eta 50 puntu edo gehiago lortu dituzten entitate guztiei emango zaie dirulaguntza.

Oinarri orokor arautzaileen 7.2 apartatua aplikatuz (50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Gobernu Kontseiluarena), dirulaguntza proposamenean zenbatekoak deialdiaren zenbateko osoa gainditzen badu, inguruabar hori gertatzen den modalitateko edo modalitateetako entitate onuradun guztien artean hainbanatuko da, eskatutakoaren eta dirulaguntzara bideratutako gehieneko zenbateko globalaren arteko soberakinari dagokion ehunekoan.

10. artikulua. Organo eskuduna eta ebazpena.

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzorde hori eratzean, kontuan hartu beharko da martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan ezarritakoa. Honako kide hauek izango ditu:

- Batzordeburua: Kultura zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Bokalak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetutako pertsona eta Kultura Zuzendaritzako bi teknikari.
- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua, hizpidea izango duena baina botorik ez, edo hark eskuordetutako pertsona.

3. Balioespen Batzordeak, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenekin batera, txosten bat egingo du, non jasoko baita onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien zerrenda ordenatua.

4. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaera ezetsi egin dela ulertuko dute entitate interesdunek.

6. Esleipen ebazpenean zer entitate eskatzailei eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

7. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie entitate eskatzaileei banan-banan, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan arautzen duenarekin.

11. artikulua. Entitate onuradunen betebeharrak.

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak onartu beharko dituzte, bai eta finantza kontrolak edota kontu hartzailetzak egin beharrekoak ere eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan jasotakoak.

c) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egoki irizitako argibide eta agiri guztiak eman beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari.

d) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak beteko dituzte, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura jasotako laguntza eta dirulaguntzak direla-eta ezarritako gainerako betebeharrak eta eginkizunak ere.

e) Egiaztatuko dute betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduera egin dutela.

f) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

g) Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren laguntza dutela, diruz lagundutako programa edo jarduera dela eta argitaratzen dituzten programen aleetan, iragarki karteletan, argazkietan eta gainerako material grafikoan, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

h) Dirulaguntzaren entitate onuradunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko du igorritako dokumentu guztietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexuetan, roletan eta genero identitateetan.

12. artikulua. Eskaerak birformulatzea.

1. Dirulaguntzaren xedea entitate eskatzaileak egin beharreko jarduerak finantzatzea denean, eta ebazpen proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran ageri den zenbatekoa baino txikiagoa bada, entitate onuradunari bere eskaera birformulatzeko eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzari egokitzeko.

2. Eskaerak birformulatzean, betiere, dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua errespetatu beharko dira, bai eta eskaerak balioesteko ezarritako irizpideak ere.

13. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak helburu bererako emandako beste batzuekin; aldiz, bateragarriak izango dira beste administrazio edo entitate publiko zein pribatu batzuek, Estatuak, Europar Batasunak edo nazioarteko beste erakunde batzuek edo Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuek helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagun daitekeen aurrekontu osoa gainditzen ez badute. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

Entitate onuradunak jakinarazi egingo dio dirulaguntza ematen duen organoari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin duen, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo entitate publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik. Jakinarazpen horrekin batera, eman edo ukatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste entitate publiko edo pribatu batzuen dirulaguntzekin edo laguntzekin batera, ezingo du inola ere gainditu sortutako gastuen kostua.

14. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, egindako gastuak, behar bezala zerrendatuta, justifikatu ondoren.

2. Oro har, diruz lagundutako programa amaitu ondoren, justifikazio agiriak aurkeztu eta dirulaguntza kobratzeko eskatu ahal izango da, justifikazioa aurkezteko gehieneko epea amaitu arte itxaron behar

izan gabe. Hori izango da modu operatibo egokia dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko.

Aurrekoa gorabehera, gehieneko bi epe ezartzen dira frogagiriak aurkezteko:

- a. 2025eko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren kultura programa guztien frogagiriak 2025eko urriaren 17rako aurkeztu beharko dira, beranduenez.
- b. 2025eko azken hiruhilekoan amaitzen diren kultura programen frogagiriak 2025eko abenduaren 15erako aurkeztu beharko dira, beranduenez.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza. 2026ko martxoaren 2rako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

3. Dirulaguntzen justifikazioa honako hauen arabera egin behar da: uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duena (aurrerantzean, Dirulaguntzen Araudi Orokorra), eta Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren 11. artikulua (dekretu horrek Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatu zuen).

Dirulaguntzen Araudi Orokorraren 75. artikuluan eta 50/2019 Foru Dekretuaren 11.3 artikuluan araututako justifikazio erraztutzat hartuko da justifikazioa.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jaso behar du:

- a. Jardueraren memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.

Ezarritako helburuen lorpen maila adierazi behar da bereziki. Gainera, sistematikoki sartu beharko da sexuaren aldagaia txostenean emandako informazioan. Horretarako, datuak bereizita eman behar dira, emakume eta gizonen partaidetzan dauden aldeak ikusi ahal izateko. Eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa ere sartuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 17. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 20. artikulua arautzen duten moduan.

- b. Jardueraren gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, honako hauek adierazten dituena: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera eman bada, izandako desbideratzeak adierazi beharko dira.

Jatorrizko fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztu beharko dira soilik baldin eta banaka edo batera, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 2.000 eurotik gorakoak badira (BEZa aparte. Horrez gain, aipatutako fakturen ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

- c. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoaren zenbateko baliokidea justifikatu beharko da. Aurrekontu osoa justifikatzen ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da, gauzatutako gastu txikiagoaren proportzioan.

5. Eskaeran puntuatutako balioespen irizpideak partez edo osorik ez betetzeak berekin ekar lezake lortutako puntuazioa eta dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu behar izatea, eta, ondorioz, dirulaguntza gutxitu behar izatea.

6. Bat etorri Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin, dirulaguntzak justifikatzeko erabili ahal izango dira faktura elektronikoa.

Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da faktura elektronikoen formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztekotan, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

7. Erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, jatorrizko frogagirien gordailuari buruzkoa, non adierazi beharko baita emandako laguntza justifikatzeko elektronikoki aurkeztutako dokumentuak (gastu eta ordainketa frogagiriak) guztiz bat datozela jatorrizkoekin eta jatorrizko agiri horiek entitatearen legezko egoitzan daudela. Adierazpen hori entitatearen legezko arduradunak sinatu beharko du.

Instrukzio organoak, laginketa tekniken bidez, egokitzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatzen dituen gastuen eta ordainketen jatorrizko egiaztapenak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

15. artikulua. Entitate onuradunek dirulaguntzaren xede diren jarduerak azpikontratzea.

1. Deialdi honen oinarri arautzaileen ondorioetarako, entitate onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertuko da, dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batez hirugarren entitate batzuek egitea hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2. Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 100 azpikontratatu ahal izango du. Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren kostua gehitu arren haren edukiari balioa erantsen ez dioten jarduerak ezin izango dira azpikontratatu.

3. Kontratazioaren onuradunen aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta haiek, Administrazioaren aurrean, hartuko dute beren gain diruz lagundutako jarduera gauzatzeko erantzukizun osoa.

4. Entitate onuradunak inola ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa edo zati bat honako hauekin:

a) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen egoeraren batean dauden pertsona edo entitateekin.

b) Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo entitateekin.

c) Pertsona edo entitate bitartekari edo aholkulariekin, horientzako ordainketak eragiketaren guztizko kostuaren ehuneko gisa zehazten badira, salbu eta ordainketa hori justifikatuta dagoenean egindako lanaren edo emandako zerbitzuen merkatuko balioa erreferentziatzen hartuta.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 68.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako egoera hauetan izan ezik:

- Kontratazioa merkatuaren baldintza arrunten arabera egitea.
- Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea.

e) Deialdi eta programa berean laguntza edo dirulaguntza eskatzen duten pertsona edo entitateekin, baldintzak ez betetzeagatik edo balorazio nahikoa ez lortzeagatik dirulaguntza jaso ez badute.

16. artikulua. Itzultzeko arrazoiak eta araubide juridikoa.

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzen Araudi Orokorrean ezarritako kasuetan.

Onetsitako dirulaguntza dela eta jasotako diru zenbatekoak itzuli behar izatekotan, zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoaren arabera kobratuko dira..

17. artikulua. Publizitatea.

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da. Halaber, hemen ere jarriko da ikusgai: Arabako Foru Aldundiaren web orrian www.araba.eus eta KulturArabaren www.kulturaraba.eus.

18. artikulua.- Azken klausula

Deialdi hau honela arautuko da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2023 Foru Araua, urtarrilaren 25ekoa, Aurrekontuei buruzkoa.
- Ekitaldi honetarako indarrean dagoen aurrekontua betearazteko foru araua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia.
- Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Plana 2022-2026.